

HAURTZARO IKASTOLAKO HARRERA PLANA IRAKASLE BERRIAK



IRAKASLE BERRIEN HARRERA PLANA

Harrera plan honen helburua irakasle berriei harrera nork egingo dion definitzea da. Horrekin batera lanean hasi eta lehen egunetarako zein informazio emango zaion eta hori nork egingo duen definituko da.

1.- ZUZENDARIA.

Zuzendariak egingo dio lehen harrera irakasle berriari. Ongi etorria eman ondoren ikastolako informazio orokorra emango dio:

- Haurtzaro ikastolako kooperatibari dagokiona:
 - Lan bazkide izaera
 - lan bazkideen eginkizunak eta eskubideak
 - kooperatibako estatutuak eman

- irakasle izaerari dagokiona:
 - Irakasle profilean definitua dagoen beraz ikastolak espero duena eta ebaluatuko dena: txostena.
 - Ikastolako funtzionamendu orokorra: funtzionamenduko txostena emango dio.
 - Irakasleen lanean ikastolan erabakiak ditugun egiteko moduen berri emango dio: urteko egutegia, ordutegia, egitura pedagogikoa, funtzionamenduko prozedurak. Dokumentu idatzia emango dio.
 - Urteko plana: plan estrategikoa, ikastolako proiektuak, bere eginkizuna. Txostena banatuko dio.
 - Ikasketa buruak, administrazioko langileak eta atezaina aurkeztu
 - giltzak emango dizkio.

Adieraziko dio gai laboralen berri administrariak emango diola eta pedagogikoaz, bere etapari dagokiona ikasketa buruak.

Horrez gain, irakasle berriak eduki dezaken edozein zalantza argitzen saiatuko da.

2.- ADMINISTRARIA:

Irakasle berriari gai laboralen berri emango dio eta irakasleak lan baldintzei buruz eduki dezaken edozein zalantza argitzen saiatuko da.

- lan kontratua
- soldata
- ...



3.- IKASKETA BURU:

Irakasle berria den etapako ikasketa buruak bere etapako, zikloko eta mailako berri emango dio.

- ikastolako e-posta helbidea sortuko zaiola adieraziko zaio eta horretarako IKT mantenu arduradunari hori egiteko eskatuko dio
- mailako irakasle taldea aurkeztu
- zikloko irakasleak eta koordinatzailea aurkeztu
- etapako irakasleak nortzuk diren adierazi
- lanean arituko den mailako antolaketa adierazi:
 - saioen ordutegia, irakasgaien antolaketa, mailako egitasmoa, programazioa, TEP...
 - jolas garaien ordutegia eta zaintzen antolaketa
 - ordu osagarrien antolatzeko.
 - ikasturteko lanen aurkezpena: Etapako UPO
 - bere taldeko ikasleen zerrenda

Argibide horiek eman ondoren mailako irakasle taldearen laguntzarekin bere lanean hasiko da. Lehen etapa bileran irakasle berriaren eta etapako irakasleen aurkezpena egingo du.

4.- MAILAKO ETA ZIKLOKO IRAKASLEAK ETA ZIKLOKO KOORDINATZAILEA:

Mailako irakasleak izango dira irakasle berriaren erreferente. Edozein zalantza izanez gero irakasle berriak zikloko koordinatzaileari edo mailako irakasleei galdetuko die.

